

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

320 - 2024ko ILBELTZA



SEIGARREN
TXAPELA



POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

2024an "hutsetik hastera noa"
Joan, joan... nora joan?



Erdarak joera nabarmena du aditz nagusiaz gain *joan* aditza erabiltzeko. Kasu hauetan, *joan* aditzaren esanahia irudizkoa da.

Euskaraz, ordea, mugimendurik ez dagoenean, ez da egokia *joan* aditza erabiltzea. Halakoetara itsu-itsuan jo aurretik, testuingurua kontuan hartuta, egokiago da euskarak bereago dituen beste modu batzuek baliatzea. Erreparatu adibide hauetan ez dagoela *joan* aditzak berezkoa duen mugimendurik; hau da, *nora joan* galdetzen badugu, ez dugula erantzunik.

- ▶ Goazen gizakiaren sorreraz mintzatzera > Mintza gaitezen gizakiaren sorreraz.
- ▶ Jatera zoazen pastela nik egin dut > Jan behar duzun pastela nik egin dut.
- ▶ Hutsetik hastera goaz > Hutsetik hasiko gara/hasi behar dugu.
- ▶ Zer esatera zindoazen? > Zer esan behar zenuen?
- ▶ Idaztera zoazenean, kontuan hartu... > Idatzi behar duzunean, kontuan hartu...

MAILOPE

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:

Agurtzane Altuna, Agustin "Mixto", Ainhoa Beraza, Aitor Goikoetxea, Mikel Betelu, Ander Elizalde, Ane Barberia, Ane Ubegun, Arantxa Olasagarre, Edurne Martinikorena, Eneritz Urkola, Eva Fernández, Garikoitz C. Murua, Hauda, Ibon Barberia, Iñaki Sierra, Imanol Iriarte, Javier Goñi, Jose Javier Irigoien, Josu Santesteban, Joxe Mari Zabaleta, Juan Antonio Garaikoetxea, Kizkitza Lasa, Leire Garmendia, Maider Balda, Mariaje Argaña, Maria Sotil, Marijo Arroki, Mikel Ijurko, Mikel Iruztia, Mikel Mugiro, Nerea Labayen, Nora Etxeberria, Teresa Mariñelarena, Unai Barberia eta Yolanda Juanena.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Noé Lopez Albizu

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 ▶ MAITE DITUT MAITE Igaratzako itzulia

08 ▶ BATZARRE

10 ▶ ELKARRIZKETA Julio Soto Ezkurdia

14 ▶ KULTURA

15 ▶ 2024 EGUTEGIA

24 ▶ KIROLA

28 ▶ PLAZATIK PLAZARA Kizkitza Lasa eta Garikoitz C. Murua

31 ▶ AGENDA





Eñaut Garmendia Aristi

Urtarrilaren 4an 6 urte.
Aupa Eñaut, zorionak! Zenbat haunditu zean! Izugarri matte zatteu. Ongi-ongi pasa zure eune. Muxu haundi bat famili guzin partez.


Ciro Intxaurren Ariztia

Ilbeltzaren 3an, 4 urte.
Zorionak bihotz-bihotzez!
Egun ona izan dezazula, zoriontsu eutsi! Sendi osoaren partetik, muxu haundi bat, ttiki.



Mikel Aldareguia Mateo

Urtarrilaren 9an, 7 urte. Zorionak eta ongi pasa. Muxu haundi bat, aitatxo eta amatxoren partez. Hain maite zaitugu.




Unai Argiñarena Saralegi

9 urte beteko ditu ilbeltzaren 16an.
Zorionak eta urte askotako mattea.
Ongi pasa zure eguna, gozatu lagun artean. Besarkada eta muxu bat familia guztiaren partez.

Enara Etxarri Urbizu

Ilbeltzaren 18an 10 urte.
Zorionak politta, egun bete-betea pasa dezazula etxekoekin eta lagunekin! Muxu handi bat etxekoen partez, neguko Enara!



Maddi Eskudero Tijero

Ilbeltzaren 16an, 7 urte.
Zorionak, Maddi!!! Segi horrela, beti irribarre batekin. Oso ongi pasa zure egunean, asko maite zaitugu!! Muxu handi bat familiaren partez.



Ane Amoztegui Goikoetxea

Ilbeltzaren 13an, 5 urte. Segi gure egunak alaitzen. Oso ongi pasa eta muxu erraldoi bat etxeko guztien partez!!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK

ARTZAI GAZTAK

Gracia Martínez, GARTZA, Nafarroa
Tel. 948 872 057 - fax: 948 511 057
Mailok.com | info@mailok.com

TAXI
SOROA

609 168 217
Bederatzi plaza

PUBLIZITATEA
MAILOPEN

Labrit Multimedia
948 210 103
mailopez@labrit.net

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak


Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



ITOIZKO ARTELANAK DESAGERTUTA

Duela 20 urte, Itoizko urtegiaren proiektua gelditzeko asmoz, artelan erakusketa bat jarri zen Artozki herrian Jose Luis Zumeta, Jose Ramon Anda, Dora Salazar eta Juan Gorritiren lanekin besteak beste. Artelanak ikusgai jarri eta gutxira, ordea, herria behera bota zuten hondeamakinek. Lan batzuk poliziak jaso zituela salatu zuten. 31 artelanetatik 14 eman berri dizkiete anonimoki Itoitzekiko solidarioei orain. Non daude gainerakoak?



PLAZA INGURUKO MUGIKORTASUNA

Lekunberriko plaza inguruko joan-etorri irtenbide bat emateko asmoz, prozesu parte hartzailea jarri du martxan udalak. Hiritik At taldearen laguntza teknikoarekin, herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte, udaberrira arte iraungo duen prozesu honetan.



PILOTA ESKOLAKO SASKIA

Abenduaren 24an egin zuten saski erraldoiaren zozketa. Mari Domingi eta Olentzeroren artean hartu zuten 0811 zenbaki saritua. Larrungo pilota eskolako Iker Hernandorena pilotariak, bere osaba Lorentzo Hernandorenari saldua izan zen txartel hori. Saskiari lekua egiteko, nahiko lan izango du familiarak orain.

► Aiora Irastorza Garmendia (Lekunberri)



*Bost urte pasa ondoren
bueltan naiz etxe aldera
bizikidetzaren mugak
berriro frogan jartzera
ta haurtzaroko eskola
gaur egun ezagutzera
irakasle izateko
grina baitut hautaera*

*Hirugarren mailakoek
egin zidaten harrera
hain ongi inguratuta
denbora azkar aurrera
urte berria hasita
bildu famili artera
berriz sinatuko nuke
horrelako itzulera*

Doinua: Irun badaukazu zer bait. **Hurrengoa:** Lore Azpirotz Sustatxa (Astitz).

AEK-N

Maisu ikasketak egiten ari nintzenean, zehazkiago esateko, bigarren mailan ari nintzela, EGA azterketa, gehien bat nire kontura prestatu nuen; prestatu, Donostiara joan, nirez kabuz aurkeztu nintzen etsaminara, eta, zorionez, lehen ahaleginean lortu nuen aipatutako agiria.

Irakasle ikasketen hirugarren maila lantzen ari nintzenean, eta, oraindik, irakasgairan bat gainditu gabe nuela, AEK Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundearen lan egiteko eskatu zidaten; nik, txintxo-txintxo eta bi aldiz pentsatu gabe, berehalaxe onartu nuen proposamen erakargarri hura, euskara irakasteko.

Gauzak hala, 1980ko udazkenean, segituan hasi nintzen lanean, euskara irakasle moduan, AEK-k, garai hartan, Iruñeko Bigarren Zabalgunean zeukan Joan Amenduze izeneko gau-eskolan, 18:00etatik 21:00etara, gutxi gorabehera, oso oker ez banago.

Horraino, dena oso dotorea eta polita izan zen, baina, kontua da, ni, ordurako, dagoeneko gurpil aulkian ibiltzen hasita nengoela, nahiz eta gogotik saiatu nintzen, nire kontura, une hura irits ez zedin, ariketa fisiko ugari eta abar eginez, baina alferrik izan zen, ordea, etorri behar zuen eta etorri egin zen. Bueno, bada, gorago aipaturiko Joan Amenduze gau-eskola hura, Vazquez de Mella izeneko eskola publikoetan zegoen kokatuta, nire zoritxarrerako. Zoritxarrerako diot, zeren eta eraikin hark sarreran eskailera luze bat baitzeukan, etzana eta zabala, hori bai, baina, azken batean, eskailera bat zen, bere maila guztiekin, eskailera guztiak bezalaxe, eta, jakina, hara iritsitakoan, eramaileak igo behar izaten ninduen beheko solairuraino, eta, eskolak bukatutakoan, noski, berriz ere, lehengo pertsona berak edota beste batek, ni jaitsi eta etxeraino eraman behar, hau da, Arrosadia auzoraino. Zorionez, eta, egia esateko, inoiz ez zitzaidan lagunik faltatu izan garraio lanak egiteko, baina, egiari zor, aitortu behar dut, egundoko asperdura ekartzen zidala beti-beti horrela ibili behar izateak, hau da, betiro laguntza eskatu behar izateak, eta, gainera, eskailera haien oztopo zail erantsi harekin.

Baina, amorrua ez zen bukatzen han, izan ere, garai hartako, AEK-ko Arturo Campion izeneko euskaltegira ere, tarteka-marteka, joan behar izaten nuen, material

gehiagoren prestaketa zela eta, koordinazio lanak zirela eta, metodologia berriak lantzeko, pedagogian sakontzeko, noizean behin ikastaroak ere egiteko eta abar. Baina, han ere, zailtasun ugari izaten nituen, hasteko eta behin, ezkaratzeko ate ondoan, mailaren bat zegoen, gero, barrurago, igogailua baino lehenago, alegia, beste mailadi txiki bat, eta, azkenik, igogailua, baina modelo zaharra, txikia eta oso konplikatuak zen gurpil aulkian ibiltzeko. Ondorioz, handik denbora batera, utzi nion Arturo Campion euskaltegira joateari, asperduraren asperduraz.

Baina, jakina den bezala, egoera zail guztiek, aukera izaten omen dute oraindik zailago bihurtzeko, eta, niri ere, antzeko zerbait gertatu zitzaidan, hara, handik hiru bat urtera, lortu nuen nire lehenengo gurpil aulki motorduna; ni, pozik txoratzen! Oso ongi gogoratzen dut: lehendabiziko egunean, ostiralarekin izanen zen, Arrosadia auzoko etxebizitzatik atera, eta, lehenik, gau eskolara joan nintzen, harro eta hantustetsu, gero, lagun batzuekin, Alde Zaharrera, zerbait hartzera, eta, azkenean, handik, Donibane auzora, parranda pixka bat egitera. Baina, gauzak zer diren!, jakina, ni, aulki motordunen gai hartan, erabat hasiberria nintzen, eta, ordaindu ere, halaxe ordaindu behar izan nuen hasiberri-saria, izan ere, halako itzulunguru handia egin ondoren, eta, jadanik, etxerako bidean nintzela, hara non bukatu zitzaidan baterien karga, eta, etxeraino, aulkia, lagunek bultzaka joan behar! A zer estreinaldi arranditsua egin nuena!

Gerora, gurpil aulki motordun hura, hantxe egon zen hilabete eta hilabetetan, beste etxe batera joan ginen arte, bateriak deskargaturik zeuzkala, gure bizitzako ezkaratzean, ezin erabilirik, gu, lehenengo solairuan bizi ginelako, eta, ez genuelako modu egokirik ibiltzeko, aldiro-aldiro, aulki gurpilduna igotzen eta jaisten, bateriak kargatzeko. A zer-nolako bitxikeriak eta ironiak gertatzen diren bitzta honetan, e?, gurpil aulki motorduna eduki eta ezin erabili! Hau da marka, gero!

Xanti Begiristain Madotz



Hurrengoa:

Elisabeth Bezdizek Zubeldia (Lekunberri)



Eva Fernández Zurilla
(Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Igaratzako itzulia (463 m)

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 17,5 km
Desnibela: 463 m
Zailtasuna: erdi mailakoa

Zergatik aukeratu dut?

Oso ibilaldi lasaia da, ia osoa pistaz egiten dena. Sasoiarekin ikusten baduzu zure burua, Aralarko mendiren bat igotzea oso ondo egonen litzateke, bista ikaragarri politak dira eta. Oso gustuko dut ibilaldi hau paseotxo lasai bat ematera joan nahi dudanean, aldapa handirik igo gabe eta inguruneaz gozatuz.


Bidea:

- 1 Autoa hartuta Aralarko San Migelerantz joango gara. 9km-an utziko dugu autoa. Eskuinaldean lekua izango dugu.
- 2 Pista hartu eta zuzen joango gara basoan zehar. Bidean argazkian agertzen den ur-jaisiera hori ikusiko dugu.
- 3 Pistan jarraituz, basotik atera eta zuzen jarraituko dugu.
- 4 Lehendikan egindako beroketarekin, datorren aldapa bat igoko dugu, pixka bat gogorra, baina bista ezin hobeagoarekin.
- 5 Aldapa igota, seinalean Igaratza dioen biderantz jarraituko dugu, pista jarraituz.
- 6 Aurrera jarraituz, ezkerrean Unako Putzua delakoa ikusiko dugu.
- 7 Kilometro batzuk eginda, Hirumugarrieta eta Errenagako putzua eskuinerantz utzita, seinalean dioen Igaratzako bidea jarraituko dugu berriz ere.
- 8 Igaratzan, Aralarko Adiskideak delako elkartea pasata, zuzen jarraituko dugu bidexka batetik berriz ere pista bueltatu arte.
- 9 Pistan behera joanda, ezkerrean Pagomari deiturikoa utziko dugu, aurrera jarraituz.
- 10 Guardetxera iristean pista bukatu egiten da, beraz, autora bueltatzeko, errepidetik jaitsi beharko gara ibilaldiari amaiera emateko.



▶ NEGUKO EGUNETARAKO HAURENTZAKO ESPAZIOA

Araizko udaletxean gurasoek kudeatutako haurrentzako espazio bat gaitzeko proposamena mahai-gaineratu da, bereziki neguko egunetan erabiltzeko asmoz. Urtarrilaren 8an egingen dute lehen bilera, 17:30ean, udaletxean bertan.



▶ ETXERA, KONPONBIDERAKO GILTZAK

Sarek konponbiderako, elkarbizitzarako, biktima guztien minen errespeturako eta presoan etxerako biderako ateak irekiko dituzten giltzak eskuetan hartu nahi ditu. Araitz eta Betelun, elkartasun bideoa egin zuten. Larraunen, mendi martxa eta elkartasun bazkaria antolatu zituzten. Urtarrilaren 13an Bilboko manifestaziora joateko deia zabaldu dute.

ERROMERIA ETA OTOITZA UZTARTUZ

Intzako Santa Kruz Ermitara egin zen erromeria irailean. Mezaren ondoren, merienda, tertuliatxo eta trikitixa ere izan zituzten alaitzaile bezala.

Abenduan, berriz, Arruizko Santa Luzia basilizara egin zen txangoa eta bertan meza nagusia zen.





MUSIKA ETA MUGIMENDUA

2020an jaiotakoei zuzendutako sei saio antolatu ditu Aralar Udal Musika Eskolak Betelun. Urtarrilak 12, 19, 26 eta otsailak 2, 9, 23 egunetan izango dira saioak 16:15-17:00 orduetegiarekin. 45 euroko kostua du eta apuntatu nahi duenak, 672122472 telefonora deitu edo info@alar.org helbidera idatzi beharko du.

EUSKAL HERRIKO KONTSEILU SOZIALISTA

Abenduan egin zuten publiko Euskal Herriko Kontseilu Sozialista. Printzant egindako aurkezpen lokalean azaldu zuten, Mugimendu Sozialistaren erreferente politiko nagusia eta bozgorailua izango da aurrerantzean. Aurrerapauso berritzaile hau ziklo politiko baten hasieratzat hartzen dute.

GREBA FEMINISTA OROKORRA

Azaroaren 30eko greba feminista orokorra dela eta elkarretaratzea egin zen Lekunberriko plazan. Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko borroka denon bizitzen aldeko borroka dela aldarrikatu zen.

Betelun berriz, aparkalekutik hasi eta Amavir zahar etxeraino egin zuten manifestazioa. Hainbeste hilabetez beren eskubideen alde borrokan ari diren zahar etxeko langileei, babesari adierazi zieten herritarrek.



“Nafarroako bertso gintza inoizko momenturik onenean dagoela iruditzen zait”

Egiten ari den ibilbidearekin gustura dago Julio Soto Ezkurdia. Seigarren aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa, eta aurrerantzean ere, ilusioz jarraitzeko grina sumatzen zaio gorritarrari.

Hasteko, zorionak, Julio. Nafarroako seigarren txapela duzu hau. Ibilbide oparoa ari zara egiten.

Eskerrik asko. Ez dakit ibilbidea oparoa den edo zer den, baina ez nuke txapeletan neurtu nahiko, badaudelako txapel gutxiago dauzkaten edo txapelik gabeko bertsolariak eta nirea bezain ibilbide oparoa edo oparoagoa egiten ari direnak. Gehiago erreparatzen diot urte luze hauetan plazan ibiltzeko izan dudan zorteari, niretzako hori da benetako oparotasuna.

Nola prestatu duzu azken txapelketa hau?

Aspaldiko urteetan lan egiteko nahiko molde berdintsua erabili izan dut. Etxean prestatzen dut txapelketa nire irakurketa, idazketa eta gogoe- tekin eta azken bizpahiru hilabe- teetan bertso eskolan ibiltzen naiz. Aurten Euskal Herriko txapelketatik gentozen eta hura prestatzen lan karga gehiago sartu nuen. Nahiko nekatuta bukatu nuen eta sumatzen nuen aurtengo Nafarroakorako ez neukala horrenbesteko indarrik.

Beraz, nahiz eta hilabete luzeetako lana izan den, kontzienteki, lana eta deskantsua uztartu behar izan ditut.

Arkaitz Goikoetxearekin joan zinen autoan finalera. Nolatan?

Nik eskatu nion ea lagunduko zidan. Finalerdietara ere elkarrekin joan ginen. Nire bertso ibilbidean Arkaitz izan da eta gaur egun ere bera da figurarik garrantzitsuena. Estitxu Arotzenarekin hasi nintzen bertso eskolan, eta esan dezaket harekin ikasi nuela bertsoan egiten. Baina behin bertsoa egiten ikasita, Arkaitzi esker eman nuen hurrengo saltoa. Begiratzeko modu bat erakutsi dit bereziki, eta garaian garai, arreta non jarri pista handiak eman dizkit. Ez dit sekula doktrinarik eman, baina beti iradoki izan dit nondik jo beharko nukeen txapelketa bakoitzean. Eta beti oso modu goxoan eta gertukoan. Aurten ere gehien balio izan didaten aholkuak berak eman dizkit. Horregatik zen niretzako horren garrantzitsua, ahal izatera, finalerako ordu erdiko bide hori berarekin egitea.

Zortziko handian, esaterako, “gizonok nahasi egiten dute zaintza eta bigilantzia” kantatu zenuen. Zenbait hausnarketa garatzeko, aurrez, lan handia egiten duzue, ezta?

Bai, noski. Halere, gai guztien aurrean gure ikuspuntua landu eta hausnartu behar izaten dugun arren, beti dira norberarentzako gai batzuk interesgarriagoak beste batzuk baino. Gaur egun niretzako, adibidez, gizontasunarena oso gai potoloa da,

“Ez nuke txapeletan neurtu nahiko nire ibilbidea”

eta gaiak horretarako bide ematen zuen. Nire ustez, gizonok hausnarketa eta aldaketa handiak egin beharrean gaude, eta ez gara egiten ari. Gure partetik itxurakeria handia dagoela deritzot. Gizonon partetik emakumeenganako dagoen jazarpena izugarria da. Orain kamuflatuago egiten dugu, baina hor dago ezkutuko bortxa hori. Botere posizio

Julio Soto.
Argazkiak, Josu Santestebanek.



Jendetza finalean

batetik begiraten diegu, gainera, eta gure inguruan, egunero ikusten dut hori. Onartu ezin diren jarrera asko onartzen ditugu.

Ze ariketatan sentitu zinen asebe-teen?

Zortziko handian oso gustura geratu nintzen Sarairerekin. Hamarreko txikia ere oso gustura egin nuen Saatsekin. Eta, beharbada, bat aukeratzekotan, azkeneko buruz burukoko ganbarako lana aukeratu nuke. Gustura eseri nintzen egindakoarekin eta esandakoarekin.

Saats eta Sarairi ongi etorria eman ez hasi, eta gero, haiekin kantatu zenuen gainera.

Bai. Lehendabiziko bertsoan ongi etorria ematea pentsatua neukan. Ez zen zozketan haiekin kantatzea egokitu eta gero pentsatutako bertsoa izan. Ez dakit ni inor naizen inori ongi etorrikerik emateko, baina keinu polit bat izan zitekeela iruditu zitzaidan eta, oro har, bertso saioetan, baina bereziki txapelketako saioetan, elkar zaintzea oso inportantea dela uste dut. Oholtza gainean norberak ahalik eta ongien egin nahi du, norberak bere aspirazio pertsonalak dauzka, baina ezer baino lehen denoi elkar zaintzea dagokigula uste dut. Orain bi urte ez bezala, aurten bertso-kideok elkar zaintzen asmatu genuela uste dut.

Zure ustez, nola dago bertsoari Nafarroan?

Bertso mailari dagokionez, Nafarroako bertso-gintza inoizko momen-



Finalistak oholztan

“Gizonon partetik emakumeenganako dagoen jazarpena izugarria da”

turik onenean dagoela iruditzen zait. Bertsolari gazte oso onak etorri dira, Nafarroako gune desberdinetakoak gainera. Oso ahots anitzak daude, eta denak interesgarriak. Entzule kopuruari dagokionez ere, bertsoa jendearengana inoiz baino gehiago iristen dela uste dut. Inoiz baino entzule gehiago daukagu. Nire lehendabiziko finalean, 2006an, 700 lagun geunden Lurren, eta aurten Anaitasunan ia 2.400. Inoiz baino lruñerriko entzule gehiago egon da gainera. Hori guretzat oso inportantea da. Orain arte, euskararen arnagune bezala ezagututako herrietakoak ziren bertsozale eta bertsolari gehienak baina gaur egun hori irauli egin

da. Ordea, oholztza gainean gertatzen ari den loraldia ez dator bat oholztza- pean gertatzen ari denarekin.

Zer ari da gertatzen bada?

Urtero ohikoak ziren bertso-saio asko galtzen ari garela, bai jaietan, baita jaietatik kanpo egiten zirenak ere. Araitx eta Larraunen ere bertso-plaza asko galdu dira. Joera hau Nafarroako beste zenbait eskualdeetara ere zabaltzen ari da. Zentzu horretan egoera kezkarria da. Bertso-saioen galerak ez baitakar bertsolari falta bakarrik, gauza asko galtzen dira bidean. Orain arte inertziaz antolatzen ziren bertso-saioak eta ez zegoen asko pentsatu beharrik, horrela zen urtero eta ongi funtzionatzen zuen. Inertzia nahikoa ez den garaia iritsi dela uste dut, ordea. Gure hizkuntza nahiko egoera kezkarrian dago. Gure euskal kulturara ere globalizazioa iritsi da eta ez preseski gure hizkuntzaren



Eneko Lazkozekin buruz burukoan

eta kultura propioaren mesedetan. Momentu honetan korronea ez dago gure alde eta inportantea da hone-taz kontziente izatea. Bertso saioak antolatu behar liratekeen beste herri batzuetan ere, bereziki Iruñerriaz ari naiz, ez gara asmatzen ari eta horra ere bertsoa gehiagotan eramaten saiatu behar genukeela uste dut.

Orokorrean, ze ekarpen egiten du bertsolaritzak gaur egungo gizarte- tean?

Hasteko, hizkuntza darama bertsolariak, euskara. Huskeria bat dela dirudi, baina gaur egun kontsumitzen dugun kulturak gero eta gutxiago du euskaratik. Bestalde, bertso saio batean jendea bildu, sozializatu eta elkarrekin egoten da, eta gurea bezalako herri eta ibar txiki haueetan, oso inportantea da

“Araitz eta Larraunen ere bertso-plaza asko galdu dira”

elkarrekin egoteko motiboa ematen duen zerbait edukitzea. Bertsoak elkarrekin gustura egoteko bide ere ematen du, bertsoari esker barre egitekoa, eta gaur egun barre eginaraziko digun kultur mugimendu bat izatea ere inportantea da. Baina ez da hori bakarrik, bertsoaren bidez jendeari gogoeta ere eginarazten zaio. Eta gogoeta egiten duen jendarteak bide askeago bat urratu dezake. Gauza asko dira, beraz, bertsoak bere txikian eta umil horretan daramatzanak, eta horregatik da hain albiste txarra bertso saioen kopuruak behera egitea.

Agurra, “sinetsi nahi dut gizakia- rengan” esanez bukatu zenuen. Zer dela eta?

Inguruari begiratu eta egoera nahiko tamala da. Gizakiak elkarri gain hartu nahirik darrai, botere gosez, gizakiak gizakia zapaltzen. Gero eta nekezagoa da aterpe bat bilatzea, duin jatea, etxeak berotzea, euskaraz biziitzea, gizaki eta herri libre bezala biziitzea... Eta gu baldin bagara mundua bizitzeko hain toki zail, injustu eta bortxaz beterikoa ereiten dugunak, gu izan beharko gara bestelako mundu eta gizarte ereingo dugunak. Positibotasun pixka bat, gizakiongan eta gu garen horretan fedea izatea ere beharrezkoa iruditzen zait eta argitasun pixka bat transmititu nahi nuen azken agur horretan. Nik ere gizakiarengan sinetsi nahi...

Imanol abeslariaren *Ausencia* kan- tako doinua erabili zenuen agur horretarako.

Bai. Imanolen antologia bat atera zuten orain dela gutxi eta hor entzun nuen lehendabiziko aldiz kantu hau. Gerora jakin nuen Lope de Vegaren bertso batzuk zirela. Lehen momentutik iruditu zitzaidan oso doinu berezia eta nahiko azkar erabaki nuen, txapela irabaztekoan, doinu horretan kantatuko nuela azken agurra. Egitura aldrebesa du eta badakit entzulearentzat ez zela erraza izan, baina garrantzitsua da norberari ilusioa pizten dion doinuetan kantatzea.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

AMAIURU BAR
GITXIKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK
948504352

ANTZONEA
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antzenea.com
Ustegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



Alaitz, Juliori txapela jartzen

“Beti saiatzen gara jendeari ahalik eta bertso onenak ematen”

Txapela, Alaitz Rekondo gai jartzaileak jantzi zizun.

Oso berezia izan zen txapela Alaitzek jartzea. Bera izan da nire bertso ibilbideko gai jartzailerik garrantzitsuen. Aurtengoa kenduta, esaterako, ni izan naizen final guztietan bera izan da gai jartzaile. Ez da bakarrik gaiak jartzeko lana izugarri ongi egiten duela, beti asmatu izan du bertsolariak ongi zaintzen, oholztan zein oholztatik kanpo. Eta horretan asmatu behar du gai jartzaile batek: bertsolaria lasai, zainduta eta maitatuta sentiarazten. Laguntasun oso berezi bat sortu da gure artean eta

bihotzez maite dut. Txapela berak jartzea izugarria izan zen niretzako, eta ez ditut sekula ahaztuko elkarri eman genion besarkada eta elkarri esan genizkionak. Finalak utzi didan momentu politenetakoa izan da.

Kuriositatez... finalean Lorian kamiseta eraman zenuen soinean.

Lekunberrin sortu den arropa marka berezia da Lorian eta beraien kamiseta batekin oholztaratzeko ilusioa nuen. Ohore handi bat izan zen etxean egindako kamiseta batekin kantatzea. Jantzen dugun arropa non, nola eta zerekin egingo den ere arreta jarri behar genioke. Hemen horrelako proiektu eder bat sortu eta arratsalde hura erakusleihu izan bazitekeen, ni pozik. Ilusio handiz jantzi nuen.

Aurrera begira, ze erronka daukazu?

Nire erronka astebururo ahalik eta bertso-saio onenak egitea da. Astebururoko lan hori da gurea. Beti da proba bat jendaurrean jartzea eta beti saiatzen gara jendeari ahalik eta bertso onenak ematen.

Bigarren erronka, neure begirada lantzen jarraitzea da. Hori da egin behar nukeen lana, hori sentitzen dut. Gure ingurua, mundua, norbera... aldatzen goaz etengabe eta bertsolariaren begiradak etengabeko lanketa behar du. Nik ere datozen hilabete eta urteetan begirada hori lantzerako unean asmatu nahi nuke. Erne egon eta ea asmatzen dudan nire begirada non jarri eta zeri kantatu.

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

HOSTAL BETELU

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09

Atabal
akindogia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

Euskararen Eguna

“Luze edo Motz” binakako bakarrizketa eta mikroipuin lehiaketako sari banaketa egin zituzten Gabarin. Hainbat ekimenekin girotua izan zen sari banaketa ekitaldia eta hurrengoia izan zen sarituen zerrenda:

-Lehen Hezkuntza 5-6: “Zapatilen zuhaitza”. Elene Goikoetxea Aldaregia (Lekunberri.)

-DBH 1-2: “Eguzki tantak begietatik”. Amaiur Goikoetxea Goiogana (Lekunberri.)

-DBH 3-4:

“1ta ihesean” Oier Lekuona (Lekunberri.)

“Tximeletaren lilura” Uxue Agirre (Leitza).

-HELDUAK: “Ezetz esan zion”. Ainara Tirapu Goñi (Oderitz).

Mikroipuin lehiaketako Araizko saridunak, berriz, hurrengoak dira:

-Lehen Hezkuntza 5-6: “Zu zeu zarena”, Arribeko Araitx Ezeizak egina.

Aipamena: “Utzi nire bizitza bizitzen”, Azkarateko Aritza Gorostidik egina.

-DBH 1-2: “Sorginkeriak”, Beteluko Nora Nazabalek egina.

Aipamena: “Utzi nazazu libre mesedez”, Beteluko Laida Garmendiak egina.



Eskualdeko idazleen liburuak

Nerea Urbizu lekunberriarrak bere bigarren liburua argitaratu du: *Ur bizitan*. Haurrei zuzendua da eta benetako gertaeretan oinarritua. César Oroz oderiztarrak berriz, *Zirt-zart Nafarroan!! Noingo bataila, 1521* izeneko komikia publikatu berri du. Zorroztasun historikoa, umorea eta gaurkotasuna barnebiltzen dira bertan. XXVII. Maria de Maeztu literatura sarietan, euskarazko lanaren irabazlea aldiz, Ainara Tirapu oderiztarra izan da, *Chicken Teriyaki* kontakizunarekin. Rosalia musikariaren abesti ezagunaren titulua hartzen du abiapuntu, eta bertatik, aldi berean jorratzen eta salatzen du emakumezkoen salerosketa, prostituta baten bizi-erretatuaren bitartez.




Argazki lehiaketa

2024ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu zuten Larraun eta Lekunberriko udalek. Juan Miguel Fernández Juárez izan zen irabazlea, bigarren saria Erika Fernández Lopezek lortu zuen eta hirugarrena, berriz, Iñaki Montes Lasartek. Udaletxeetan eta Mixtausenean daude eskuragarri egutegiak.

2024

MMAILLOPE



2024 MAI LOPE

2024 MAI LOPE

2024 MAI LOPE





300x Mari Zabalza
Mugitoko ibiket ur jauzia



Masubi Argita



Lalre-Garmondia Irarte
Askasate herria Baraldi azpi-ur, aterata

Uztaila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Abuztua

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Iraila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Urtia

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Azaroa

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Abendua

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



Ilbeltza

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Otsaila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

Martxoa

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Apirila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Maiatza

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Ekaina

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Bi hitz. Erlazio toxiko bat.

Gaurkoan ahalik eta emekien aritu nahi dut, gaiak goxotasuna eta maitasuna merezi dituelako.

Bi dira aukeratutako hitzak, suizidioa eta erromantizismoa, eta bat, hauen artean sortu eta normalizatu dugun erlazio toxikoa.

Norbaitek bere buruaz beste egiten duenean, haren ingurukoa, justifikazio bila hasten da, dena ulertu, arrazoitu eta kontrolatu nahian, mina eta errua kontrolatu nahian. Baina ez dugunean erantzuna topatzen, sufrimendua hasten da gure hitz eta ekintzen jabe izaten. Kontrolaezina bihurtzen den arte, eta buklean sartzen gara. Azkenean arrazoimena gehien desafiatzen duen sentimenduak, hartzen du lekukoa. Maitasunak. Eta suizidioa maitasun ekintza moduan justifikatzen dugu sarritan.

Behin eta berriro esan digu gizarteak hori dela bide zuhurrena. Nork ez du entzun inoiz Romeo eta Julietaren berri, maiteminak beraien buruaz beste egitera eraman zituela. Besterik gabe onartzen dugu hala izan zela, pentsatu gabe. Inoizko maitasun istorio hilezkorrenaren amaiera, heriotza bera da.

Suizidioa ez da erromantizatu behar, ez da maitasunagatik egiten, desesperazio, atsekabe, ezinegon eta barne sufrendu luze baten ondorioa da. Eta hala denez gero, gizartea kontzientziatu behar da. Osasun mentalari daukan bezain beste garrantzi ematen hasi. Agian horrela konponbidea ere zein den argitzen hasi gaitzke.



Bertso-afaria Arruizko elkartean

Azken urteetako ohiturari jarraituz, bertso-afaria antolatu zuten abenduan Arruizko elkartean. Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze aritu ziren kantuan, umore ederrean. Librean aritu arren nahiko heldu leku topatu zituzten, Aitorren bizitasun eta Sebastianen esperientziarekin entzule guztiak adi-adi mantenduz.



Iruñeko ahots grabeak

“Voces Graves de Iruña” abesbatzaren kontzertuaz gozatu zuten hainbat entzulek Lekunberriko San Juan Bataiatzailearen elizan. Euskal kantuak, elizkoiak eta beste hainbat klasiko uztartuz, abeslarien trebeziak, txundituta utzi zituen bertaratuak. Abesbatzaren hurrengo bisita jasotzeko gogoz etxeratu ziren.



KULTURARTEKO HEZKUNTZA EUSKARA ETA FAMILIEN HEZKUNTZAK
EDUCACIÓN INTERCULTURAL, EUSKERA Y LENGUAS FAMILIARES

AMELIA BARQUÍN LÓPEZ

NOLA LORTU GURE HAURREN INGURUAN EUSKARA GEHIAGO ERABIL DADIN?
¿CÓMO AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ENTORNO DE NUESTRAS HIJAS E HIJOS?

KIKE AMONARRIZ GORRIA

EUSKARAREN SUSTAPENA NERABEZARORAKO TRANTSIZIOAN
LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA EN LA TRANSICIÓN A LA ADOLESCENCIA

NEREA PERMACH MARTIN

Gurasoentzako ERA trebakuntza eskolen III. edizioa

Euskara Zerbitzuek, Euskarabidearekin batera, eskolan euskara ikasten duten haurren familientzako guraso eskola ekimena abiatu zuten 2020an. Hirugarren urtez, hiru adituk hezkuntza, euskara eta heziketa ukitzen dituzten gaiak jorratu dituzte eta sarean eskaini, euskaraz zein gaztelaniaz. Aurtengo emanaldietan honako gai hauek landu dira: kulturartekotasuna euskarazko hezkuntzan, nola sustatu euskara nerabazarorako trantsizioan eta gurasoen hizkuntza portaeren eredugarritasuna. Gurasoen interesekoak diren kontuak landu dituzten adituak Kike Amonarriz, Amelia Barquin eta Nerea Permach izan dira.



Dantzariak



Araitz Beteluko Eguna, bazkaria



Omenaldia



Omenduak

Araitz eta Beteluko 2023ko Kulturaldia

Ekitaldi mordo bat izan dituzte aurten ere Kulturaldian eta jende mordo bat bertaratu da deialdietara. Araitz eta Beteluko Eguna ere giro ederrean ospatu dute, besteak beste emakume beteranoak sokatiran arituz eta bukaeraren herri kirolari guztiei omenaldia eginez. Talde antolatzaileraren mezua hurrengoa:

ESKERRIK ASKO!!

Araitz eta Beteluko "Euskaraz bizi" taldeak eskerrak eman nahi dizkizue aurtengo kultur astearen antolaketan laguntza eskaini diguzuen guztiei.

Jardueraz beteriko astea izan dugu, gai eta arlo ezberdinak lantzen saiatu gara, adin tarte guztiak aintzat hartu eta gaur egun interesgarriak izan zitezkeenei lehentasuna emanez; eta pozgarria da jendeak horren ongi erantzutea, herritarren parte hartzea beharrezkoa baita gure Kulturaldiak arrakasta izan dezan!!

Herritarrok kultur astearekiko daukagun sensibilizazio, motibazio hori da, datorren urteari begira, beste Kulturaldi erakargarri bat antolatzeko ahalbidea eta indarra ematen diguna.

Araitz eta Beteluko Udalei, herrietako Kontzeju eta elkarteei ere, eskerrak eman nahi dizkiegu, urtez urte, gure proposamenak bideratzeko eskaini diguten laguntza eta prestutasunarengatik.

Datorren urtean gehiago eta hobeki! Bitartean... EUTSI EUSKARARI!!!!

ARAITZ ETA BETELUKO "EUSKARAZ BIZI" TALDEA



Tapia eta Leturia Band



Sokatira gizonak



Sokatira emakumeak



Aizkolariak



Trontza



Mahai ingurua, Gabenara eta Gabezin



Bertso afaria



Txotxongiloak



Euskararen ziriGOLa



Lagunasesoria S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



Astitzen etxez etxe. Ane Barberia



Lekunberriko harrera. Hauda

Azkarateko allandoak.
Agurtzane Altuna

Neguko solstizioari oles eginez

Urteko gau luzeenari behingoz eguna irabazten hasi zaiola ospatzeko, herriz herri Allandotan kantari ibili dira herritarrak. Albiasu, Alli, Arribe, Astitz, Atallu, Azkarate, Betelu, Gaintza, Gorriti, Lekunberri eta Uitz alaitu dituzte kantuz, besteak beste, eta Amavir egoitzan ere izan ziren musika eskolakoak. Mari Domingi eta Olentzerori dagokienez, urteroko bisitak egin dituzte gure ikastetxeetan. Ilusioz jaso zituzten eta Eguberri egun bezperan ere, haiekin egoteko aukera izan zuten haurrek, bai Betelun eta bai Lekunberri. Beti egon arren ikatza jasotzen duenik, opariez gozatzeko, ederki etorri zaie oporralditxoia etxeko gazteenei.

Hainbat ekimen antolatu dira eguberrien harira, baina bat azpimarratzekotan, berriki zendu diren bi bizilagunei eginiko omenaldi berezia aipatu beharra dago. Urteetan ospakizun hauetan lan eta paper garrantzitsua izan duten, Juan Manuel Zamargilea eta Joxe Mari Irujori egindakoa, alegia. Mari Domingi eta ikazkinaren etorreran, zein bertako beste ospakizun batzuetan ere, oinarri izan dira. Haien lana eta prestutasuna eskertzeko, merezi-tako omenaldia egin zieten.



Betelun Olentzero bizkarrean jasota. Aitor Goikoetxea



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.

Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**



urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

Kaixo 2024, eskerrak 2023

Urtea bukatu berri da eta badago hemen hurrengoa. Ez dakit zer biziko dudan 2024an, baina aurreikuspen batzuk egin da ditut jada, hala nola, lana eta zenbait konpromiso neurri batean planifikatuta, bidaiaren bat ere, eta gutxi gehiago. Asmoak eta gogoak dantzan, sorpresak zain. Neure burua zaintzen eta ezagutzen segitu nahi dut, maite ditudanekin kalitatezko denbora bizi, lana ahalik eta modu txukunenean egin, natura eta bidaiak gozatu.

Eta zerekin egingo dut topo 2024an? Zeren aurrean irekiko naiz? Eta itxi? Zer egongo da berri neure bizitzan? Zer errepikatuko dut, ona zein txarra? Galdera asko eta erantzun gutxi, momentuz.

Joan den urteari errepasso eginda, asko daukat eskertzeko, asko. Aurreikusitakoak, gehien bat bete ditut. Sorpresak ere egon dira eta gehienak onak izan dira. Esaterako, berriz bikote maitasuna ezagutu eta bizitzen ari naiz, osasuna oso ongi joan da eta doa, aurrera egin dut neure burua ezagutzen eta errespetatzen, opariak egin dizkiot neure buruari -tartean mendi irteerak eta bidaiak ederrak-, lana oso ongi joan da eta, errepassoarekin bukatzeko, bizitzaren arlo desberdinetan egon diren zailtasunei iruditzen zait orokorrean ongi egin diedala aurre.

Urte osoan presente izan dut nire bizitza neure ardura dela eta honek neure bidean jarri duena nik bizi behar nuela. Kontzientzia eta jarrera honekin segitzea espero dut 2024an ere.



Gaintzako allandoe-
tan. *Agustín Mixto*



Amavir egoitzan. *Jose
Javier Irigoien*



Araxes ikastetxean. *Maria Sotil*



Atallu eta Arriben
kantari. *Maria Sotil*



Allin goiza alaitzen.
Ane Barberia



Juan Manuel Zamargilea eta
Joxe Mari Irujori omenaldia.
Juan Antonio Garaikoetxea



Ibarberri ikastetxean.
Nerea Labayen Esnaola



Gorritin kantari.
Agurtzane Altuna





Ttutturre K.E.ren urteko batzarra

Hurrengo puntuak onartu zituzten batzarrean:

-Datorren urtean Bizkaiko lurretatik hasiko dira. Askok ez dute ezagutzen eta Kantauri itsasoko urmuga zeharkatuko dute. Anguloko portuan hasi eta Hiru Erregeen Mahaian amaitzen da. Beraiek lehenengo 10 etapak egingo dituzte, Lekunberritik aurrerakoa egina dute eta.

-Mendi-ibilaldi asko edonork egiteko modukoak dira, adin-mugarik gabe, betiere egoera fisiko onean badaude edo zenbait orduz lur malkartsuetan ibiltzen ohituta badaude. Hala ere, ordezkio planak ere prestatuko dira beti, martxa nagusira gutxien egokitzen diren parte-hartzaileentzat.

-Ttutturre K.E.ko Zuzendaritza Batzordea eta gidariek programatutako ibilaldietan (ordutegiak, ibilbideak, etab.) aldatetako egiteko ahalmena izango dute parte-hartzaileen onerako. Hirugarren irteeratik aurrera, ezinbestekoa izango da federatuta egotea.

-Halaber, Ttutturre proiektuari laguntzera animatzen dute jendea, bazkide eginez (20 € urtean).

-Hurrengo da 2024 urteko irteera eta jardueren egutegia:

·Urtarrilak 28. Euskal Herriko Urmugako lehen etapa: Anguloko mendatea – Gorobel mendilerroa - Urduñako mendatea.

·Otsailak 11. Ttutturre eguna: Irañeta-Agiri-Ata-Oderitz eta Juanluzenea Sagardotegian bazkaria.

·Otsailak 25. Euskal Herriko Urmugako bigarren etapa: Urduñako mendatea – Nerbioiko ur jauzia – Corral gaina – Goiuri – Altubeko mendatea.

·Martxoak 2. Proiekzio-hitzaldia: Alex Txikon (Ttutturre K.E. – Kirolmank).

·Martxoak 31. Euskal Herriko Urmugako hirugarren etapa: Altubeko mendatea – Burbona – Gorbeia – Atxuriko pasoa - Baratzar mendatea.

·Apirilak 27. XXXI Sakanako Ibilaldia (Iratxo Elkarte).

·Apirilak 28. Euskal Herriko Urmugako bederatzigarren etapa: Lizarrustiko mendatea – Hirimugarrieta – Albino zelaia (100 mendi).

·Maiatzak 26. Euskal Herriko Urmugako bosgarren etapa: Krutzetako mendatea – Jarindo – Arlabango mendatea – Arkamo – Marieta.

·Ekainak 1. IX Euskal Herria Mendi Erronka (E.H.M.E.).

·Ekainak 30. Euskal Herriko Urmugako seigarren etapa: Marieta – Elgeamendi – Mugarriluze – Sekillaga – Arantzazuko Santutegia.

·Irailak 1. Aresoko XIII Mendi Itzulia (Areso Kirol Elkarte – Kirolmank).

·Irailak 6, 7 eta 8. Asteburu-pasa Palentziara: Curavacas - Pico Murcia.

·Urriak 6. Erakusketa mikologikoa Lekunberrin (Altsasuko mikologoak – Lekunberriko Udala- Ttutturre K.E.).

·Urriak 13. Andia mendilerroan dagoen Euskal Herriko erdigune geografikora martxa (Iratxo Elkarte – Mendi Federazioak).

·Urriak 27. Euskal Herriko Urmugako zazpigarren etapa: Arantzazuko Santutegia – Urbia – Aizkorri – San Adrian - Otzaurteko mendatea.

·Azaroak 24. Euskal Herriko Urmugako zortzigarren etapa: Otzaurteko mendatea – Etxegarateko mendatea – Intsuburu - Lizarrustiko mendatea.

·Abenduak 15. Euskal Herriko Urmugako laugarren etapa: Baratzar mendatea – Saibigain – Urkiolako mendatea – Orixol – Krutzetako mendatea.

·Abenduak 22. Mendigoizaleen Eguna: Aralarko San Migel.



Eskubaloiko III. Jesus Aranaz memoriala

Infantil, kadete eta jubenil mailako partidak jokatu zituzten neska-mutilek, Nafarroako Federazioko lehendakari izan zenaren omenez antolaturiko lehiaketan. Egun osoan zehar izan ziren partidak Plazaola Kiroldegian eta egun motibagarria izan zen Lekunberri Kirol Elkarteko eskubaloi eskolakoentzat. 54 jokalarri dabilta gaur egun.

XVII. Araitz eta Beteluko Krosa eta XXXIV. Lekunberriko Krosa

Urtarrilaren 14an izanen da aurten Araitz-Beteluko krosa eta aurrez izena eman nahi dutenek <https://www.kronoak.com/es> webgurearen bidez egin beharko dute. Egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, baina 5€ garestiagoa izango da. Sari orokorrez gain, mankomunitateko korrikalariarentzat, beteranoentzat eta bestelakoentzako sariak ere egongo dira. Berritasun batekin dator gainera aurtengo edizioa: 7,7km askotxo iruditzen zaizkionak, lasterketa bikote batekin erdibana egiteko aukera izango du. Hori bai, gutxienez bietako bat emakumezkoa izatea da baldintza. Lekunberriko krosa berriz, martxoaren 17an izango da. Aurten ere Kaskamotz Solidarioarekin kolaboratuko da, "Cris contra el cáncer" fundazioaren kausan lagunduz, haurren minbiziaren aurka.



Larraun Pilota Elkartean denboraldiko argazkia

7 eta 37 urte arteko 93 pilotari dabilta aurten elkartean, herena neskek osatuta. Kategoria guztietan daukate pilotariak eta pilotako formakuntza jasotzea da helburu nagusia, zenbait balio lantzearekin batera (errespetua batez ere). Entrenamenduak Lekunberriko frontoian eta trinketean egin ohi dituzte, baina palaz jokatzeko Barai-barko frontoira ere joaten dira, besteak beste.

Ibai Martirena eta Xabi Azpirotz binakako finalean

Abenduaren 30ean jokatu zuten finala erremontistek, Galarreta pilotalekuan. Ansarekin aritu zen Martirena eta Urrizarekin berriz Azpirotz. Sasoi ederra ari dira erakusten bi larraundarrak eta zaleak mugitzea ere ekartzen du horrek, harmailetan nabaria zenez. Partida berdinduaren ostean, Urriza eta Azpirotz izan ziren txapeldun.





Besarkadak

Besarkada honela definitzen da: estutu besoen artean. Zalantzarik gabe, nire maitasun-ekintza edo maitasun-ekintza gogokoena. Niretzat ez dago besarkada bat baino hoberik: gaizki nagoenean ondoeza arintzen du, ondo nagoenean ospatzeko modu bikaina da. Hain da horrela, ezen berari buruz idatzi nahi bainuen; izan ere, maila zientifikoan ere frogatu da besarkadak propietate asko dituela.

Kontaktu fisikoa sentitzen dugunean, gure burmuinak oxitozina askatzen du, "maitasunaren hormona" bezala ezagutzen dena, lasaitasun, konfiantza eta lotura emozionaleko sentimenduak sortzen laguntzen duena.

Gainera, afektu fisikoak estresa murriztu dezake, estres-egoerakin lotutako beste hormonaren eragin negatiboari (kortisola eta adrenalina) aurre eginez. Are gehiago, bakardade-sentsazioa gutxitu eta aldarre positiboa sustatu dezake.



Beraz, besarkaden onurei buruzko laburpen txiki bat egingo dugu:

Bakardade sentsazioa gutxiarazten du: Maitasun besarkadek ongizate sentsazioa ematen digute, besteen aurrean errekonozimendu handiagoa sentitzen laguntzen diguna. Horrela lortzen dugu besteekin konektatzea.

Estresa murrizten dute: Hainbat ikerketak erakutsi dute besarkaden bidez estresa murriztu dezakegula eta erlaxatzen laguntzen digutela. Hain da horrela, besarkada mota desberdinen bidez gure sistema immunologikoa sendoago izatea lortzen dugu. Izan ere, babes sozial handiagoa sentitzen duten eta, beraz, besteak gehiago besarkatzen edo ukitzen dituzten pertsonak gaixotzeko aukera gutxiago dute. Izan ere, besarkadak eman ohi dituztenek sintoma ez hain larriak izaten dituzte hotzeria eta beste birus baten eragina pairatzean.

Zoriontasuna ekartzen dute: Besarkada baten bidez maitatuak sentitzen gara eta horrek zoriontasunez gainezka sentiarazten gaitu. Esan dugunez, jasotzen ditugun besarkadek gure gorputzak oxitozina askatzea eragiten dute, zorionaren hormonetako bat. Substantzia kimiko horri esker erlaxatu egiten gara eta estresaren edo tristuraren ondorio guztiak kontrolatzen dira.

Gure arteko harremanak hobetzen dituzte: Besarkada sendo eta luze batek laguntzen digu gure arteko harremanak iraunkorragoak izan daitezen. Izan ere, giza ukimenak eragin handia du besteekiko harremanetan. Hainbat ikerketek erakutsi dutenez, lagunaren, senidearen eta bikotekidearen

besarkadek harremanak gogobetea-
go sentiarazten dituzte.

Eutsi gure beldurrei arrastoa:

Besarkada bat emateak autoestimu baxua duen pertsona batek sentitzen duen antsietatea murrizten lagun dezake. Ikerketen arabera, ukimena-ri esker lagun diezaiokegu pertsona bati bere buruarekin gaizki sentitzen diren egoeretan isolatzea saihesten.

Mina arintzen dute: Besarkadaren botereak min psikologiko eta fisiko batzuk arintzen ere lagun diezaguke. Fibromialgiari buruzko ikerketek erakutsi dute ukimenak bere bizitzaren kalitatea areagotu dezakeela eta gaixotasun horrek hautemandako mina murriztu dezakeela.

Besteekiko komunikazioa hobetzen dute:

Pertsonok imajinatzen duguna baino gehiago atzematen dugu pertsona batek transmititzen duen gorputz-hizkuntzaren bidez. Hain da horrela, non besteak besarkatzean ere modu batera edo

;))

Oraindik arrazoi on bat bilatzen duzue maite dituzuen pertsonak besarkatzeko? Besarkada samurrak eta maitasunez besteak funtsezkoak dira gure osasun mental eta fisikorako.

Hori bai, besarkada on bat izan dadin eta onura horietarako guztietarako konta dezan, zentzuzko besarkada bat izan behar du, indarrez eta gutxienez 12 segundokoa ;)

bestera komunikatzen baikara, gure emozioak besarkadan transmitituz. Besarkada baten bidez, esker ona, zoriona, tristura eta sinpatia ere transmiti ditzakezu.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

● ● Kizkitza Lasa eta Garikoitz C. Murua

Margotu eta margotu

Eskualdera iritsi berriak dira Kizkitza Lasa eta Garikoitz C. Murua. Intzan bizitzeko ideiarekin ailegatu ziren duela hilabete batzuk eta Momo kategoria ere haiekin da. "GKo galeria eta arte estudioa" proiektuan murgilduta daude buru-belarri.



Kizkitza Lasa eta Garikoitz C. Murua

Duela 14 urte ezagutu zuten elkar Garikoitz eta Kizkitzak. Ordurako, proiektuaren ideia sortua zuen Garikoitzek, eta txikitako laguna duen Camilorekin batera, artea eta sorkuntza ardatz, kale-artearekin lotura zuzena duen ibilbidea hasi zuten. Kizkitzarentzat elkar ezagutzearen pack berean etorri zen aipatua, eta berean GKo ez da enpresa bat, bizi proiektu bat baizik. Kudeaketa eta aholkularitza

ekonomikoan lagundu zuen hasiera batean, eta GKo-k bueltan, arteak, esperimentazioak eta sorkuntzak duen aberastasuna eman dio. Dena den, berak ez du egunerokoan GKo-n lan egiten, beste enpresa batean aritzen da administrari.

2008an sortu zuten GKo, Street Art (kale-arte) galeria. Euskal Herrian ireki zen erakusketa eta salmentarako le-

hen kale-arte guneetako bat izan zen. Denborarekin, 2013an denda gehitu zuten, eta 2018tik aurrera kultur-arte sorkuntza agentzia ere badira. Gaur egun Garikoitz lan nagusia margoitzea da, bere muralak eta margo lanak zabaltzea, ezagutaraztea... eta bestetik saltzea. Era berean, kultura-arte eta gizarte lotzen dituzten proiektuak izaten dira haien helburu.

Tolosan dute denda, bertan haien arropa marka saltzen dute, haiek serigrafiatua. Horrekin batera, artisten lanak ere saltzen dituzte. Urtean behin denda jaso eta erakusketa bat egiten dute, bertan Euskal Herriko kale-arte esanguratsua den gonbidatu bat aurkeztuz. Gonbidatuak bere lan berrienak aurkezten ditu, eta era berean, salmentarako bitartekari lana egiten da. Tailerra eta bulegoa Ibarra dituzte, bertan proiektuak ekoiztu eta sortzeko. Garikoitzek bere margo lanak bertan egiten ditu.

Kizkitzak betidanik bizi nahi izan du baserri batean eta biziak Araitzera ekarri ditu. Txikitari aitona-amonekin pasatzen zen ibar honetatik eta orotzapan oso politak ditu. Beti sentitu izan da inguruari lotuta: "hemen zerbait berezia dago, ez dakit nola azaldu, energia berezi bat sentitzen da". Garikoitzek ere leku hau paregabea dela dio, edertasunak eta lasaitasunak ez dutela parekorik: "guk bertakoen-gandik ikasteko gogo handia dauka-

"Euskal Herrian ireki zen erakusketa eta salmentarako lehen kale-arte guneetako bat izan zen"

gu, bertan dagoen lurra eta nortasuna mantentzeko ideiarekin gaude, argi baitugu hauek direla herri egiten gaituztenak". Elkar ezagutzean, GKo proiektuarekin jarri ziren buru-belarri eta baserriaren proiektua lozorroan geratu zen. Urteetan bilatzen aritu ostean, aukera hau suertatu eta izarrak lerrokatu izan balira bezala sentitu zuten.



“Hemen zerbait berezia dago”

Araizko zaporeen ferian ere parte hartu zuten. Bai haien margo lanetarako eta baita zerbitzu bezala ere, serigrafia lanak egin eta ikastaroak eskaintzen dituzte. Arriben, haur eta gazteekin tailer txiki bat egitea pentsatu zuten eta gutxi batzuk animatuko zirela uste arren, azkenean jende askok parte hartu zuen: “oso gustura joan zen bakoitza bere poltsa estanpatuarekin”. Bide batez, haien dendan dutena ere ekarri zuten, eta merkatuaren parte izan ziren guztiz.

Aurrera begira, baserriaren egokitze lanetan aurrera egin eta martxa pixka bat hartzea dute helburu. Haien ari dira egokitze lan horiek egiten eta abentura polita izaten ari omen da. Kizkitzaren aita primerako laguntzai-

lea dute gainera. Etorkizunean, lan zati bat etxetik bideratzeko aukera, ez dute baztertzen. Garikoitzek dioenez bere lanak mugikortasuna du, beraz, hemen pentsatu, landu eta edonon egin dezake. Kizkitzak, berriz, Olaberriaren egiten du lan: “egun batez behintzat telelana egiten dut eta egia esan oso erosoa egiten zait. GKO-ri dagokionez, lekura egiten goazen heinean joango gara hauek bideratzen”. Aurrerago begira, badituzte zenbait ideia buruan baserria eta artearekin lotuta, baina oraindik oso goiz da hauek azaltzeko.



Ikusi bideoa hemen:



CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

ERAIKUNTZAK

TEILATUAK
FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones Gañarbe

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📞 616 457 540
✉ construccionesganarbe@gmail.com
📞 636 827 846

Eguneko Zentroaren lan deialdia

Terapeuta okupazionala kontratazeko lan poltsa sortzeko deialdia abiatu da. Urtarrilaren 14an bukatuko da dokumentazioa aurkezteko epea eta informazio gehiago nahi duenak, udaletxeko webgunean dauka eskuragarri.

Curriculumak cdlekunberrilarraun@gmail.com helbidera bidali behar dira.



Erosketak bertan egitearen abantailak

Lekunberriko ostalari eta komertzioen elkarteak 5 sari potolo zozketatuko ditu urtarrilaren 6an. Bertako komertzio eta ostatueta kontsumitzearen truke lortu daitezke parte hartzeko txartelak. Bertan kontsumitzeko bonu ezberdinak daude sarien artean, besteak beste.



ESCAPE ROOM ITINERANTE EN CEDERNA GARALUR

EL DESAFÍO DE LA CONEXIÓN RURAL

21

Enero
Urtarrila

DONEZTEBE

Herrigune

10

Febrero
Otsaila

LUMBIER

Centro Cívico

17

Febrero
Otsaila

SANGÜESA

Palacio Valle Santoro

16

Marzo
Martxo

ORBAITZETA

Palacio Fábrica Armas

23

Marzo
Martxo

ALTSASU

Casa Juventud

24

Marzo
Martxo

OTSAGABIA / OCHAGAVIA

Centro Cívico de Ochagavía

ESCAPE ROOM IBILTARIA CEDERNA GARALUR

LANDA-KONEXIOAREN ERRONKA

ESCAPE

THE CITY Dinámico
Desafíos/Zeak

GRATUITOS - Es necesario inscribirse
DDAINIK - Izen ematea derrigorrezkoa

Inscribete
Izeno eman

UNIÓN EUROPEA

Gobierno de Navarra

Navarroako Gobernua

2019

cederna garalur

ZONA MEDIA

Teder

consorcio EDER

Más información
conectanavarra.org

CONSEJA NAVARRA RURAL

LANDA NAVARRA LOTU

▶ AGENDA

URTARRILA

4 - 17:30 Haurrentzako zine saioa euskaraz: Tess eta ni. Baraibarko ostatuko ganbaran.

5 - 18:30 Errege Magoen kabalkada Lekunberrin. Aralar kaletik alde zaharrera eta Jayan Jai pilotalekuan harrera.

13 - Uitziko inauteriak: erronda eta festa.

13 - 22:00 Kontzertuak Printzan: Nakar (Donosti punk sintetizatua) eta Bris (Iruña olatu hotza).

14 - XVII. Araitz eta Beteluko krosa: 10:30 Haurrak. 12:00 Helduak.

18 - 16:00 Hitzaldi informatiboa: Balio natural handiko sega-belardiak. Gabarin.

28 - Ttuturre K.E.-k antolatuta, Euskal Herriko Ur Mugaren ibilbideko lehen etapa: Anguloko mendatea - Gorobel mendilerroa - Urduñako mendatea.

Urtarrileko azken asteburuan eta otsaileko lehenengoan: Baso suteei buruzko ikastaroa Betelun. Izena emateko business@greentechfactory.es helbidera idatzi.

CARPINTERIX Hnos. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

German Lasarte
ARDEGONO
HARATEGIA
Aralar kalea 8
Lekunberri
948534157

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-KLINIKA
Ametz Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

ekin
rotulacion
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
Lontxo Otamendi Artola
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

serigrafia
diseinua
estanzazioa
kaixo@gko.eus 606 226 234 gko.eus

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

aitz berri
edertasun zentroa
Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com
Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpailnetan
Mikroblading bekainetan



*Urte
berri
on!*